

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

253n. zenbakia  
uztailla-dagonilla 2000



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## ZIORTZA GAUR

- ABAT-ETXEA
- ILLERRIA
- ELEIZEA
- IBILTEGIA (KLAUSTROA)
- ABAT-ETXE BARRIA
- GAISO-ETXEA (OSTATUA)

**ASKATASUNA**

(Atletiren alde, antxiña abestuten zan eresi zar batean, abestu leike)  
(Al Atleti porque era vaseo, todos le tenían asco etc .....)

(1)  
Erri Batasuna zer zara  
oraintxe daukat nik aukera  
euskotarra esateko  
zein dan egi berbera.      bis

Sabiñek ezarri eutsan  
Euskadi izena,  
euskotar geienontzat  
Aberri kutuna,  
Sabiñek ezarri eutsan  
Euskadi izena  
esanik Euskadi      bis  
da gure Aberria.

(4)  
Euskadi euskotarrentzat      bis  
geuria eta geuretzat.

Euskadin askatasuna  
lortzeko eguna,  
ainbat lasterren betor  
euskaldunongana,  
orretarako lenengo  
arturik ardura,  
sariago eltzeko  
Eusko Parlamentura.      bis

(3)  
Bizkaia, Araba, Gipuzkoa  
Napar, Laburdi, Zuberoa      bis  
sei seme dira ama batenak  
eta Euskadi da ama.

**TXINDORRAREN ANTZERA**

¿Zer dirauskuzu txindortxu polita  
sasi orren gañean negarrez jarrita  
txori deungak sartun eta zeure abian,  
¿jarri ete zaituez curen azpian?

Euskotar txori papar gorritxua  
ezara zeu bakarrik zori txarrekoa,  
bada eusko semiok be geure abian  
naigabez bizi gara curen azpian.

(2)  
Ez da naikoa ibiltea  
gora Euskadika kalean  
itz egin bear dan etxean  
mutu jarraitutzea.      bis

Sabiñek ezarri eutsan  
Euskadi izena  
euskotar geienontzat  
Aberri kutuna,  
Sabiñek ezarri eutsan  
Euskadi izena,  
esanik Euskadi      bis  
da gure Aberria.

----- ..  
**(Habanera zar baten eresian abestutzeko)**

Gaurko euskotarrak gazte ta zarrak,  
naiz egoaldekoak, naiz ipartarrak,  
{ Aberri bakarra Euskadi dala,  
autortzen dogu guk parraparra.

Emen gabiltz danok beti ekiñean  
Euskadiren alde lanean  
naiz etxe barruan, naiz dala kanpuan  
f edozeñeren aurrean.

Maite dogu beti guk eusko gogo  
geure biotzen barrenean,  
lagunduz alkarri estutasunean  
maitasunaren menpean.

Gaurko euskotarrak ..... (Lenengo eresia errepikatuz)



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**  
**KULTURA SAILA**  
**LAGUNTZAILLE**

AMUTXATEGI'tar ANDONI

## BEGOÑA (I): IRUDIA

Bizkaitarrok benetan maite dogu Begoña'ko gure Ama eta beraganako zaletasunak garoaz, Bilbao'tarrak batez be, baiña Bizkai'tar guztiak berari buruz berba egitera.

1.300n. urtean bagillaren 15'an sortu eban Haro'ko Lopez'tar Diego bostgarrenak Bilbao izeneko lurretan uria. Alan diño berak "fago en Bilbao" eta orregaz esan gura dau Bilbao aurretik be an egoala. Baiña noiztik egoan erreka-inguruan Bilbao erria? Ez dakigu baiña ba-dirudi erromatarren aldi or egoala, naizta Fabliobriga izena Bilbao'ri dagokiona izan ez. Erromatarrek gure Ner-bion'eri Nerba esaten eutsen eta bear ba'da erreka oneri jarraituz sartu ziran Bizkai-barrura.

Urte orretan Bilbao Begoña'ren zati lez agertzen da eta auzo bi daukaz, bata salerosleena eta itxas-gizonena bestea. Urte orretan Santiago'ren elei-zea agertzen da buru lez Begoña'gaz amarrenak erdibana egiñez. Eleiz orretara batez be etorten ziran ibaitik Doneiakue'ren erromesak.

1.300n. urte orretan sortzen da Bilbao Begoña'ren zati lez eta uria izateko, baiña ez da ori Begoña lenengoz aitatzen dauan agiria 1.162n. urtean aitatzen da toki lez.

Artagan muiñoaren gaiñean, Bilbao oiñetan chala, eleiza txiki bat zan Begoña'ko Andra Mari. Ezagutzen ez dogun eta iñoz nor dan be jakingo ez dogun irudigille batek egin eban Amaren irudia, uria sortu zan urte inguruan. Non egin ete zan? Bizkaia'n? Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n antzeko irudi asko dagoz. Guztiak dauke alkarren antza, baiña Begoña'koa da ederti baliorik aundiena dauana. Gauza arrigarria da olako irudi ederra ain eleiza txikian ego-tea, baiña ez da aitzu bear Bizkai'ko Jaunaren eleizea zala eta Begoña monastegi bat zala. Dana dala, irudi ori izan da Bizkai'tarren biotzak beraganatu dauzana. Irudiak 1,17 neurri ditu goitik bera, goi-aurki baten jezarrira dago, begi ederrak zabalik, barretxua espanetan, baru-jantzia eta gaiñekoa eta garrikoa garrian. Gaiñeko jantziak izurrak daukaz belau-netan, oin biak oiñetakoakaz eta bien erdian azkenengo izurra. Aurrez, ezkerreko berna-gaiñean baiña erditik aurrean



dago umea. Onek be barruko jantzia ta gaiñekoa daukaz. Amaren esku ezkerre umearen sorbalda-gaiñean dago. Umearen aurpegia txeratsua eta agerbide aundikoa da, esku-meagaz bedeinkapena emoten dau eta ezkerrean liburuau dauka zabalik. Ez da irudi geldia Binzantzioko irudien edo erromanikuen antzera. Beste toki batzutako irudiak, esatera-ko Fruniz'koa, geldiagoa ta artezagoa da, barretxua barik eta umea be aurrera begira dala. Ezaugarri oneik Fruniz'ko au lenagokoa dala esan nai dabe.

Olako irudia ikusi dabe gure aurretikoak, gitxi aldatuta ikusten dogu guk be. Len zurezko koroia eukan baiña kendu egin eutsen eta urrezko bures-tuna ipiñi jakon. Lenago eskuman lorea eukan, baiña apurtu egin zan eta gaur aginte-makilea, zetroa, dauka.

Gaurko bizitza ulertzeko lako irudia da, ez zarra eta ez gaztea, adin eldukoa, bizitza zer dan eta gurea zelakoa dan utertzeko lako. Bai, gure bizitza, gaurkoa, ulertzen dau, baita erdi-aroko euskaldun latzen bizitza be, edo beti hurrukan ebiltzan aide nagusi ankerrena. Gudaz naikotuta Begoña'ra eltzen ziranean, oraindiño espatak odotduta eta barrua gorrotoz eukela. euren damua agertzeko etorten ziran eta, curen Ama Andra Maria'ren oiñetan belaunikatzen ziran Artagan'en, torre-etxeai eta bizitza ankerrai begira egoan Ama eta Ama

onek bere semea aurkezten eutsen, bakea eskintzen eutsen. Begoña'ko Ama bakearen Ama da.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

**OARRA:** Amar idaz-lan idatziko dodaz Begoña'ko Ama'ri buruz eta jakingarriak Bizkai'ko Aurrezki Kutxaren "Coleeeiön de Temas Vizeaiños" liburuan agertzen dan eta Mañarikua'tar Andres'ena dan lanetik artuak dira. Ez da beti itzulpena egiten dodana, jakingarri batzuk gaiñeratzen dodaz, beste batzuk itzi. Eskerrik asko.

### ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:  
EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta croan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

### Ipuintxua

# LUTZIPERRERI ADAR BAT LAPURTU EUTSOE

TXINDURRETA.– Azkenengo astereko IZPAR BARRI-an agertu da izpar arrigarri bat: "LUTZIPER-eri, txerrenen jaun aundienari, lapurtu dautzoela, adar bat, baten batek.

Lapurtasun ori izan zala, txerre orrikeri aundienetakoan. Ezaten da lapurtasun ori izan zala, eusenian gustek orrikeri aundi aretan. Ta aundiena da lapurtasun onetan, ainheste txerren artean, iñok ez ehela ikusi, noiz, zeñek ta zelan lapurtu-eutzan txerrenen jaun aundienari, adar bat, LUTZIPER-eri.

IZPAR BARRI azterokoan, jarraituten da ezaten: "Ikusi garria zan. zelako neaste itxuraituzan leku aretan, laztasun danena; surbur uzaiñ aundea danean; jasantsu eziñ zan; LUTZIPER-eri urteten eutsin abotik, belartietatik ta begietaitik txinpartak; onek, ukabilkoak emoten zan adarra orostu eutzein buru lekuan; iraulkatutezan lurtean garrazi aundienetakoak; ta burbutzi batetik, ogei anei txerren aldatuzean gorotzean: beartu eben beste txerren gustek jan eixen zikinkeri dana. Atzenian, danairi zatitu eben beren ainkakadak ta atzamarragaz, ta ezer ez ikusteko orriskeri aretan egon zian anairi.

Ezaten da gero, LUTZIPER, txerren gustien jaun aundiena, ikusten zan, jauzita. Esaten eben:

- ¡Zer lotz! ¡Zer lotz aundia dakot! ¡Zelako barreak egingo dabe, lau anka tan bi bernakoak, ta baita bere beste ainbestek, lapurtu dosteuelako nere adar bat, ta geratu nazela adar bateaz bakarrik. Danak esango dabe, barrezka. ¡Ze itxurea! Okerrena da, lapurtu dostenak nere adar maitea, lapurtulezkela geratu dan beste adarva be.

- Orreelan, nere aalmena ezetan gertukoda.! Ez, ez: Nere bi adar gabe ¿Ze barregarri itxurean geratuko nitzaiken? ¡Gutxituta baño ezeratutua ikusten naiz! Ta ori ore lan ba da, txerren gustek galduta gaoz.

- Ta orreelan euenian, LUTZIPER, ipiñi zan bera begira, ta ¿ze ikusi eben? Beren prakak be: lapurtu eutzeilla. Ori ikusten alaz, garrazi aundienetakobat entsunzan. Didarka eskatuten eben: Ondiok bizidian txerrenak, entzun zer nai doten, baño laister, laister: ¡Prakak nerezat! Prakak gabe lagaituidosteilako lapurrak. Txerren batek erantzun eutzan: "Nere Jaun aundia: Prakak ez daku, bakarrik daku gona batzuk! Ta LUTZIPER'ek erantzun eutzan: ¿Gonak? ¿Bakarrik gonak? Ba ez bako-tzue ezer geiago, ekarri eizu GONA OREIK. Ta eruan eutzain gona ezta ta txiki bat, neskatalieaneana; Ikusi ebenian, esan eben LUTZIPER-ek: ¡Ze lotz! ¡Ze apalkuntza!

Danori ikusi ta entzun eben Txinizpar-ek, azteroko IZPAR BARRI berri-idazleak, ezkututa txokotxu baten; itaundutu eutzanak LUTZIPER-ereri: Urtetik Lur-etik

zuek gustek, lureko lapurrak, ikusten dalez, zuek baño geiago dakixeilla txerrenkerietan, joatenez Lurretik ¿Nora joan-go dea txerren zar gustek?.– Oneri erantsun eutsan LUTZIPER-ek: "Ikusten nago, izan lezke joatia ORION-neko konsteltzion alde areitera, lezken".

Berriz itaundotzan berri-idazleak:

¿Ez dozu uzte LUTZIPER, akelarrak ta sorgiñak izan lezkiela orostu dotzuenak adarra eta prakak?

Orreri erantzun eben LUTZIPER-ek: "Ez, orreik ez dagoz zartuta lapurtasun oneitan, bi bernakoak baño. Akelarrak ta sorgiñak, dagoz bakarrik, entzuten goizeko kanpaiak: "AISE OTZA TA GOZIA, batek, ta bestiak erantsuten: "¡Beti mixeri, beti mixeri!".– Orrein ondoren, ori da dana –ezaben LUTZIPER-ek.

Baita be, Txiniñisparreak, esaten dago, entzun ebela iardun ardurazkoa ardure aundiko artean: Zubi gorri bat ta skorpi batek. Lenengoak esaten eben: Ikustenzena ez zela geiago aalmen aundi bat baño, txerren zar ta txerren barrien artean; ta beskeak esaten eben: "aalmen puxikatua dala, baikotzak nai dabelako geratutea danaz, ta gatazkea txerrenen artean, zarrak ta barrien artean. Danen ta betiko ezta-baidea".

– Baña orain dago, gure, txindurruen, itaundea: "Danorretan, Gu, Txindurreak ¿zelan geratuko gera?".

**ONTZATEGITXU**

**Lima. Perú**

**Ipuiñ au dago idaztita, BIZKAI-ko antxiñako auzke-rean**

ZUGATZAK BOTA EZKERO, URA  
TA TXORIAK BADOAZ.  
ZUGATZAK SARTU EZKERO,  
URA TA TXORIAK EKARRI  
EGITEN DIRA"

**R. Codorniu**

OARRA: Ipuin onegaz amaitzen dogu Caracas'etik Jon San Juan Z. (Ontzategi'txu)'k bialdu dauskun ipuin-moltzoa. Gure itaun batzui erantzuteko dan bere eskutitza artu dogu eta ona emen gutun orretatik artzen doguzan jakingarriak:

- Ez da argitaratu "Antxiña hete zan lurpeko inper-nua" deritxon ipuiña. Bidean galdu ete da? Ez dogu artu.
- Ipuin oneik Cuzeo (Peru)'n aurkituak Jira, moltzo

baten eta pergaminoetan. naikoa zapuztuta, etxe baten ondakiñetan eta Agirre eritxon baten ondorengoak itzi ebezan an.

- Eskutitza egin dautsagu Jon San Juan Z.'ri eta "ZER" onen izenean esken-ik beroena agertu dautsagu.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

## MUNGLIA

Erri ederra oroi nai zaitut  
zure izate onian  
mendirik mendi biderik bide  
aipatuteko oiñian.  
gizarte ederra sortu izan dozu  
uncen joan-etorrian.  
zentsuna, beti, aurrelaria  
izan da zure bizian.

Noranaitara begiraturik  
ederra da zure sena  
solo zabalak lur sendoakaz  
dira sustrairik onena,  
millak urteetan fruti' onenak  
gogoz emon dabezana  
seme alabak bizi egien  
alkartasun bikaiñena.

Zure itxura egokia da  
iparraldetik egora  
eskerraldetik eskumaraiño  
eskarrez dozu jokera,  
lauak ederrak, tontorrek bikain  
danak alkarri begira,  
solo ta zelai. bide zabalak  
dan danak doaz errira.

Emonkor dira zelai orleiak  
aberatsak lurraldeak  
goiztik gabea danak haterra  
zaintzen ditu eguzkiak,

urre gorria dirudi goiak  
mantel urdiña zeruak  
danen artean egazka dabiltz  
ama lurraren txoriak.

Paradisua dirudi danak  
eguzkiaren sorreran  
leio zuri ta teilla gorriak  
gora goraka aidean,  
etxeko ama oial zuriaz  
agurka dabil pozetan  
eta jendea gora begira  
maitasunezko itzetan.

Gizon aundiak bereak ditu  
Mungiak bere senian  
erri jatorrak gizon jatorrak  
sortzen ditu onenian,  
lengo aldian solo ta mendi  
landuz zintzotasunian,  
a zan bai poza sentitzen zana  
lanaren amaierian.

Erri eder bat osotu eben  
urte askoren buruan  
alkartasunez garbituz lurak  
zentsunaren inguruan,  
gure mendiak alaiak ziran  
igetaiagaz eskuan  
gero kodaiñak agertu ziran  
dindilizka sorburuan.

Senar emazte buril argiak  
zentsunez inguraturik  
gizontasunez jokatu eben  
umeak, ondo, esirik,  
lanean zintzo, eskolan argi,  
egokiro jokaturik,  
erriarentzat senik onena  
goiztik gabea sorturik.

Jakituria jakituria...  
Mentxaka eta Zameza  
askoren arte izan zirian  
Mungi erriaren poza,  
argitasunez goitik beraiño  
beterik euken biotza  
eta ondoren maitasun garrez  
argitzen eben bizitza.

Euskalerritik Erromaraiño  
zabaldurik eben argia  
Erromatikan mundu guztira  
eskeiniz fede bizia.  
gora gizonak esan bear dot  
aipatuz jakituria  
Mungiar seme zoragarriak  
or dago zuen kabia.

**Paulin**



# BERTSOLARITZA GALDAKANO'N

### Bertsolaritza arloan Galdakaoko zar-barri batzuk

#### Eustakio'tarrak

Orain berrogei urte inguru Galdakao errian Bengoetxe auzoko Tomas Garai jaunak Eustakio "Eulea" bertsolariaren bertso atal batzuk kontatu eustazan baita Urtebieta baserriko "Txala" renak ere. Ogeitabost urte baño geiago ere badira, Felix Zugazaga'k bere anai Inazio ta Balendiñeri ere neronen aurrean auxe esan eutsela: "Aititen bertso papelak Marianori emoiozak". Baña neure aldetik ere bai geur bierko ta bier etziko itzi, ta azken baten danak joan yataz. Felix'ek Mungi erriko kamiñoaren bertso batzuk esan eustazan baña bertso pepelak egozala ta nik ez nenduzan idatzi, ta olan gaurartiño. Mungi erriko Udaletxean ere galdetu neban ze, kamiñoaren bertsoak Mungiko Udalaren aginduz egin ziran kamiñoa egin zan denporan, baña gerra denporan Franco-ren abioiak Udaletxea ta baserriek be desegindu ta erre egin ebiezan euren bonba zoritxarrekoekaz. Orainarte beintzat kamiñoa zala ta Udalak ez dauz Eustakioren bertso orreik aurkitu.

Jesus Maria Etxebarria Gatika erriko abade jaunak Laukiz errian Eustakio "Eulearen" bertso batzuk gente askok eukezela ta beste askok buruz ere beste bertso batzuk jakin ta batu ere egin ebazan "Zortzi nobio ta zortzi amodio"koak da Balendin Zugazagaren alaba Edurneri orain bost edo sei urte inguru dala makinan idatzita emon eutsozan, eta Edurnek neroneri. Amoriza jaunari ere "Bizkaiko Bertsogintza" bigarren libururako Etxebarria abadeak Eustakioren barriak emon eutzezan.

Etxebarria abadeagaz nik berba egin ondoren ZER aldizkarirako zortzi nobioaren bertsoak nai nebazala ta baietza emon eustan, berak batuko lana da ta.

Orain Eustakio ta beren famili arteko barri batzuk esan eta ondoren "Ogeigarren illabegarrenean Txala ta Galdakao bizi izan diran bertsolarien ixentaziño bategaz lan txo au amaituko dot. Baña Eustakioren barrien artean karta polit bat ere bada emen ta irakurleak asmatu bearko dau Zemendiaren 26en, 1920garren urtian bertsoetan idatziko gauzatan Basili dan esakune ortan, gazte denporako maitasuna "fraka zar pobrearentzat" ere baegoela, naita Amerika urriñean egon biotz barman ere baegoala erakusten emoten dau ta.



*Elbire*

**Jon:** Astronomo, olerkari, bertsolari ta abar, baita Esperanto izkuntzaren irakasle. European, oso ezaguna izan zan. 27 urtegaz Galdakao 1932/4an il zan.



**Inazio "Mane":** Mosugitarra eta txilibitu jolea izan zan. Bertsoetan be aititen urek eukezan. Denporearen igertzailea be bazan. Edozein domeka edo igandetan, Galdakao jai giroen bat bear bazan, "Manek eta Amerikanitok" bizikeleta karreraren bat antolatzea baño ezeukien, bien arteko nor geiagoka bat sortuta. Bilbon 1988an 81 urtegaz il zan. "Manek" Panplonako Aberri eguna egin zanean, Bergarako errian beste bategaz bertsoetan ekin eutsen.

**Felix:** Ajustadore eta mekaniku trebea. Bilbon 76 urtegaz 1984garren urtean il zan.



**Balendin:** Korrikalari eta oñezko ibiltaria ere ona zan. Galdakaoko Santamañe Ganguren tontorretik asi eta Gorbaiera bost orduan sartu zan. Orretaz, El Correo Español El Pueblo Vasco (19-6-1982) 8garren orrialdean zerbai badakar.





**Sahino:** Pertsonaren eta gauzaren irudiak egiten eta margoztuten artista utsa zan. Galdakaon il zan 1941 garren urtean 27 urte zituela.



**Jon Zugazaga:** Bertsolari ta esperanto maixu, au Europako tokitan ere ezaguna izan zan.



**Eustakio** baserri onen bealdean bixi zan. GALDAKAOKO Bengoetxe Auzoan Trobika Baserria.

Bakarrik eta igiti bat eskuen dauela, Eustakio Larra-beiti, ospe andiko bertsolaria. Nik "Andra Mari Taldea 40 urte Kantuz eta Dantzaz" liburu orretan, 1995garren urtean Juan (Jon) Zugazaga eta Eustakio aitututen nenduzen 66garren orrialdean, baña an "Eulea" esan barik Olea jarri neban, nire errakuntzaz; eta Bengoetxeko Tomas Garaik "Eulearen" bertso papeletako atal bat beren modura esan eustan. Felix eta Inazio Zugazaga geratu ziran aitari-taren bertso paperak neroneri emoteko, euron aitek Mungi erriko kamiñoari be erri orren aginduz bertsoak atara eutsozan da. Gaurko atalean Ameriketako karte eta "Zortzi nobio"renak baño ez dira agertzen.




**EUSTAKIO "EULEA"**  
Felixen esanetatik "Eulea"  
LOIU'tarra zan

Aulkian, bakarrik eta jarrita, Jon Zugazaga, bertso eta olerkietan ona baita Esperanto izkuntzan ere irakasle olla.




**Jon, Eustakioeta Felix.**  
**Eustakio "Eulea"** aulkian jarrita, Balendin bere eskoi aldetik eta Felix ezker aldetik dituzela.



Eustakio, Luyukoa zan ta eskondu antza Laukiniz'en, Ganene baserrira eta andik bixiten Galdakaora etorri ta **Bengoetxe** auzoko Trobika baserrian bizi zan, ta azkenean Urreta auzora biziten joan ta an il zan. Argazkian Trobika baserria.

Eustakiori buruz esaten zan beren amaren altzotik

bota abala lenengo bertsoa. Galdakaon, Ele x a l d e auzunean, ango jaientan bertso-tan egiten e b a n , P e d r o Enbeitagaz, land a r e n erdian pareute "Urretxin-dorragaz".



## BERTSOETAN

### ZORTZI NOBIO ETA ZORTZI AMODIO

Neska polit bat jagok Laukizko errien  
zortzi nobio jozak urte bi t'erdien  
zortzigarrena dauko inoizko larrien  
ez ibili baziren fineza garbien

Lenengo nobioa zalako beroen  
mutil galanta baina bekoki pardue  
aregaz artu banu neure estadiue  
orain egongo nintzen ondo ezkondu

Bigarren nobioa zan zapatarie  
kojue izan ez balitz konsolagarrie  
neuk ere banituen orratza ta arie  
baina eneban gure nik zapatarie

Irugarren nobioa zala alargune  
bazter askon jabe ta erederu jaune  
ak ere euki ez balu etxebete ume  
egie da zeozer egingo gendune

Laugarren nobioa gauean zan joaten  
gelako bentania koska jotzen  
aurreko jo ta atzera urten  
ori bai, Josepatxo, sarri egin zeunsten

Bosgarren nobioa señor Eusebio  
egunian peseta bi daukoz diario

axe izango neunke inor baino obago  
berak gure baleu neu konforme nago

Seigarren nobioa Eustajio eulia  
fraka zar iñuxente koitedu pobria  
ik ere bainduen ezkondu guria  
baina eragin eunstan erretiradia

Zazpigarren nobioa zan barrenderue  
irabazi eiten eban bastante dime  
ak ere euki ez balu zurie burue  
beste bat izango zan neronen asmue

Zortzigarren nobioa Jose auzokoa  
amazortzi urteko mutil ditxosua  
gorputz ederra eta mutiltxo majua  
zeuk izan bear dozu neure esposua

Ni zure lengusu ta zu nire lengusin  
ibili zaite ortikan ixiltxo beinepein  
badakit zabizena kanpotik esaten  
despeidatu nozula bentanaren baten

Zu orain ibilteko olakoak esaten  
ni zure bentanara enintzen joaten  
amaika demoniño bajagok munduen  
Josepa lengusiñak engañau ninduen.

Ona emen niri Bengoetxe auzoko Tomas Garai jaunak  
kanta eustazan Eustakio jaunaren bertso papeletako atal  
batzuk:

Neska polit bat dago Lumoko partian  
zazpi nobio ditu ille bi terdian,

Lenengo nobiyoa Eustakio "Eulea"  
iñozente koitedu fraka zar pobrea,  
arek be euki euen ezkondu gurea  
baita laster emoeutsien erretiradea.

Bigarren nobiyoa Jose euzokoa  
amazortzi urteko mutil ditxosoa,

amazortzi urte ta emeretzi etze,  
Jose euzokoagaz ezkondu leitike.

Neure aldetik ere errakuntza bat egin nindun "Andra  
Mari Taldea 40 Urte Kantuz Eta Dantzaz" (1995) liburu  
ortan, Eustakiori buruz diñodanean: ...Eustakio Olea,  
naita Tomas jaunari nik ondo artu: Eustakio "Eulea".

JOSE MARIANO BARRENETXEA

### EUSKERA TXARRA

Esquetara etorri yatar. Bizkai'ko Foru Aldundiak 1999  
urterako argitaratutako arauak. Erderaz eta euskeraz idatzi-  
ta dagoz. Ona emen euskerazko izenpurua:

Pertsona Fisikoen

Errentaren

Gaineko Zerga

Arrituta geratu naz batuaren ezintasunaz benetako eus-  
keraz jarduteko. Badirudi batuzaleen euskerea gaztelaren  
erdalkia bihurtu dala, eta gure izkuntza gauzak adierazoteko  
gai ez izanik. erderara jo egin bear dabela. Aztertu dagigun  
dalako izenpurua:

Lenengo ta bein, "de las personas físicas" badogu cus-  
keraz berba jator auxe: "gizakien" eta ez dau iñongo eras-  
penik bear zer dan argitzeko. "Errentari" buruz, badogu itz  
ezagun au: "Mozkin".

"Errentaren Gaineko Zerga" idaztea eliztiaren aurkako  
astakeri andia da. Euskaldun jator batek erderara biurtzean,  
onetaraxe jarriko leuke: "Impuesto de encima de la renta".  
Ona emen, beraz, benetako euskeraz zelan idatzi dalako  
idazpurua:

Gizakien Mozkiñari

Buruzko Zerga

Euskera txarrak gure izkuntzaren duintasunari kalte  
andia dakartso. eta areago erakunde entzutetsu batetik dato-  
rrean. Bizkai'ko Foru Aldundiak bizkaitarrek ezagutzen  
ez dabon euskera erabilli dagiala. beste astakeri andia da.  
Noiz etorriko yaku zentzun apur bat...? Euskera txarrak eta  
gaiñera. iñork irakurten ez dauan euskeraz idaztea. ergelke-  
ri andienetakoa da. eta diru-galtze burubakoa.

Zubiri'tar Iñaki

### PEDRO PUXANA

Pedro Puxana idazle eta itzultzaile arabarrak Bilboko  
XXX Liburu Azokaren "Urrezko luma" jaso zuen atzo Ana  
Madariaga Kultura diputatuaren eskutik, euskara eta Euskal  
Herriaren alde egindako lan oparogatik. Aramaioko Oletako  
apaiza, gaztetatik euskararekin konpromitua, bere herriko eus-  
kararen berezitasunak eta edertasunak batu, aztertu eta zabal-  
tzen lan handia egindakoa da. Berari zor zaio Araba aldeko  
aintzinako euskalkiaren aztunatzat jotzen den Oleta euskar-  
aren ezagutza. edota "Bizkaiko Forua" liburuaren itzulpena,  
1983an. Aramaioko seme kuttuna, ohorezko euskaltzaina da.

(Oskar) - (DEIA'tik ARTUA)



---

## URKITZAKO ESKOLAKO ARDURADUNAKAZ BERBETAN (BAKIO'N)

---

**Guztiok dakigun lez, gaur eguneko ikastetxeak gero eta esparru geiagori oratu eta ardura andiagoak artu bearrean dagoz, besteak beste, gurasoek leenago beteten ebezan zereginetarik ainbat eta ainbat euren-ganandu bear izan dabezalako. Orregaitik, ez da arri-tzekoa eskolen funtzionamendu eta eginkizunak korapilatu izana. Ardatz au kontuan izanda, gai onen inguruan berba egin gura izan dogu Ines Baraiazarra gure erriko eskolako zuzendariagaz eta Marije Muruaga Guraso Alkarteko buruagaz. Alan bada, eskolako oraina, geroa eta erronkak berbabide artuta, itaun batzuk egitea sano interesgarria izango zala begitandu jakun. Eurek adirazotakoa zuoi guri besteko jakingarri suertatuko jatzuelakoan, ona emen gure berbaldiaren zatirik garrantzitsuenak:**

**ZER: Oker ez banago, 20 urte inguru egin dozuz Bakioko eskolan, zeintzuk dira tarte orretan sumatu dozuzan aldaketarik esanguratsuenak ikasleen zein azpiegituren aldetik?**

**I.B.:** Bakion eskolak emoten asi ginanean, ikastetxea eleizearen ondoan egoan. Andik ona agiriko aldaketak izan dira, esaterako, guraso eta irakasleen ekimenari esker lortutako eraikin dotore au. Ori bai, ume kopurua sano gitxitu da azken urteotan. Beste alde batetik, ikasleei jagokenez, balaunaldi aldaketea egon da, eta geuk, irakasleok, sasoi barri oneetara egokitzen ikasi bearko dogu, gizarte balioak naiko aldatu diralako. Edozelan be, ez dot esan gura leengo ikasleak oraingoak baiño obeak edo txarragoak zirarik. Oraingoek gizartearen beraren aldaketak sortutako beste halio batzuk daukez, besterik ez.

**ZER: Erreformearen ostean ainbat gai eskolen pentzudan lotu dira, esate baterako, bide, ingurumen, sexu, musika, balio eta abarren ezkontzea. Ez da ori guztiori eskolearen ardurapean gai larregi iztea?**

**I.B.:** Sarritan irakasleen artean aitutzen dogun gaia da, eta guk ataratako ondorioa da gizarte eta familiaren egitura aldatzeak ekarri dauala eskolearen kontura ainbeste ardura izatea. Izan be, gizartea bera naiko korapilatu da eta gaur egun familiarrean ez da alkarregaz ainbeste gai lantzen. Orreri erantzuteko, bada, eskolak konpentsazio lanak egin bear izaten dauz, familiar lantzen ez diran balioak transmititu guran. Edozelan be, gatxa da, ze arlo askotako gai ezbardinak landu bearrean gagoz.

**M.M.:** Gure aldetik, guraso moduan, familiaren arlo ori jorratu gura izan dogu. Dana dala, orain dala urte birik

ona ez dogu berbaldirik euki umeen eziketari familiaren inplikazioak daukan garrantziaren ganean. Orain, osterabe, aalegintzen asi gara olango ekintzak abian ipinten, baina aita-amek beti esaten dabe ez daukela bear besteko astirik, bearrean dagozalako, ezin dabelako edo orduak egokienak ez diralako. Orretan, gurasoen inplikaziorik eza igarten dogu. Eta, benetan, penagarria da, ze olango berbaldietan asko ikastez ganera, entzundako gauzak praktikan ipini aal dira.

**ZER: Badakie gurasoek zertan datzan aita-amen eta eskolearen arteko baterako ezkontzea? Edo gero eta andiagoa da ardura guztiak eskolearen esku izteko jokabidea?**

**I.B.:** Guk, irakasle modura, bai igarri dogu leengo gurasoetatik oraingo gurasoetara eskuartze eskasagoa, bearbada ez eziketari bertan baina bai beste arlo Guraso Alkartekoei be sarritan entzuten deutset, eurak alkartetik joandakoan ez dala beste inor egongo bearrerako prest. Eta egia da, nai ta gurasoek gero eta kultura eta informazio maila altuagoa euki, eskolearen kontura ardura lar izten dabez. Era berean, argi ikusten dogu indar andiagoa egiten dana eskatzeko orduan, eskua luzatzeko orduan baino.

**M.M.:** Guk be argi ikusten dogu aita-amen eskuartze eta inplikazioa ez dana guk gura geunken besteko ona. Eta gauza asko egiten badira be, tiraka-tiraka ibili bear izaten dogu. Zoritxarrez, gizarte onetan guzti-guztiok gero eta modu indibidualistagoan jokutzen doguna igarten da.

**ZER: Urrengo urteari begira urte biko umeentzako gelea abian ipinteko asmoa dago. Eskolarik geienetan orrelakoak egon arren, ez dozue pentsetan lar goiz danik umea etxetik, gurasoen altzotik atara eta aita-amen ardurak kentzeko? Ez da umeak "aparkatzeko" beste toki bat izango?**

**I.B.:** Ba, egia esan, guk be pentsakerea aldatu bear izan dogu azken urteotan. Orain dala 20 urte, esate baterako, uste genduan umeak etxera bazkaritan joatea askoz egokiagoa zala. gurasoak euki bearreko artuemonak ez galtzeko. Dana dala, gizartearen egiturea aldatukeran, gaur egun mota onetara zerbitzuak eskaini bearrean gagoz, olangoak emotea bear-bearezkoa dalako gurasoen eskaerei erantzuteko eta kalitatezko produktua opesteke. Beste alde batetik, nik ez neuke ezelan be aita-

---

## IRAKASKINTZA

---

tuko "aparkatzeko tokiarena", eskoletan konpentsazio lana egiten aalegintzen garalako, au da. etxeetan izaten diran ezbardintasunak bateratu eta ainbat esparrutan galdu diran balioak transmititzeko aaleginak egiten doguz. ume guztiek antzeko aukerak euki daiezan. Alde orretatik, hada, eskolak ezin dira aparkalekutzat artu. Ori bai, guztiz errespetagarria da oraindino umeen eziteketa leenengo urteetan etxean bideratu bear dala pentsetan daben gurasoak egotea. Baina, itauna auxe da: badago gaur egun orretarako aukerarik? Ze bikote-kide biak bearrean badagoz, umea jagoteko pertsona bat artu bear izaten da. Orduan, umea adin bereko beste batzuek az egoteko aukerea baztertzen da. Ori dala eta, nik uste dot gaur egun urtenbide ona dala adin orretako umeak eskolara ekartea, etxean beste pertsona bategaz iztea baiño.

M.M.: Nik, egia esan, leengo ama modura pentsetan dot eta nik ez neuke adin orregaz eskolara eroango, baina beti be ni etxean nagoala kontuan artuta. Ganera, artue-monak lantzeko be badago gurasoen bearra: ume txikerrak daukezan pertsonak topatu, kalera urten eta paseoak egin... Dana dala, egoki baino egokiago ikuste dot era orretako zerbitzuak eskaintzea, eskoleak gaur eguneko errealitatearen arabera jokatu bear daualako. Ganera, esan bear da une onetan une biko umeentzako gelak guztiz arruntak dirala eskolarik geienetan. Alan da ze, au guztiau ez da aparteko gauzatzat artu bear.

**ZER: Gizarte eta teknologiaren abiadura eta aldaketak ain andiak izanda, badagoz irakasleak eta gurasoak prestatuta gure sistemak sortuazotako desfaseei erantzun egokia emon aal izateko?**

I.B.: Ba, egia esan bear bada ez gagoz bear bestean ondo prestatuta. Guztiagaz be, au jazoteko erantzukizuna administrazioarena da, teknologia barrien arloan, esate baterako, eskolea atzeratuenetariko bat dalako. Ori, zoritxarrez, jazoten jaku administrazioak irakasleak birziklatzeko egitasmorik martxan ipini ez daualako. Orduan, egindako guztia gure borondatean oinarritutakoa baino ez da izan. Ori, jakina, ez da biderik egokiena, gurataezko birziklapen ikastaroak antolatu bear diralako eta ez norberaren jakinminean edo borondatean oinarritutakoak.

**ZER: Zeintzuk dira eskolako urrengo urteetako erronkarik nagusienak?**

I.B.: Udalak eta guk, une onetan, erronka bera daugu: erri onen etorkizuna jagotea. Eta erri bateko geroa jagoteko, guztiz garrantzitsutzat artzen dogu eskolearen etorkizuna, neure buruan ez da sartzen eta, eskola bako erririk. Ori, erri ila izango litzateke. Ikastetxeei eutsi bear jake, gurea lako erriei bizitasuna emoteko. Arlo onetaz ganera, gure profesionaltasuna jagoten jarraitu bear dogu,

eten bako birziklapena planteatuz. Izan be, gure esparruan dabilen profesionalak argi euki bear dau zelango gizartera goazan, zelango erronkei egin bear jaken aurre eta orren arabera egokitzen jakin.

M.M.: Arlo onen ganean lar ez dakidan arren, teknologia barriek bildur apurtxu bat eragiten deuste, orreek larregizko individualismo eta komunikaziorik eza ekarriko ez ete deuskuen itauntzen deustot neure buruari.

I.B.: Ori, dana dala, gure ikuspuntuaren arabera jazoten da eta neurri bateko aurreritxia be izan leiteke, ze gure gurasoen sasoia aintzat artzen badogu. guk egin genduan saltoa be itzela izan zan eurentzako.

**ZER: Azkenik, eta txantxa modura betiko topikoaren inguruan itandu gura deustut. Zuon oporraldiak dirala eta, Ines, irakasleok ondoen bizi diran profesionalak zaree?**

I.B.: Ba, erantzuteko, esan bear deustut, gauzak aldatu egin dirala eta irakasleok ez garala ondoen bizi diranak, parlamentarioak baino. Edozelan be, eta txantxak alde batera itzita, guk daukaguzan oporraldiak bearrezko ikusten doguz umeentzat zein irakasleontzat.

**ei ZER: Era berean, profesionalik depresiboenak zaree. Mito ori zenbateragino artu leiteke egiatzat?**

I.B.: Bai, maisu-maistren lanean dagoan gaixotasunik zabalduena ei da, estatistikei begiratuta. Edozelan be, ezin dogu alderatu Bakion daukaguzan estres mailea beste alde batzuetan daukenagaz. Ze, zorionez Bakio ez da erri arazotsua eta orrek laguntzen deusku beste patxada batez areri eusten.

**ZER: Tira, ba! Ea guztion laguntzino, bear eta ekarpenei esker bizirik eusten deutsegun Bakio lako errietako eskola txikiei!**

ZIRUDI

---

---

ZUGATZ BAT SARTU  
DAUANARENA EZ DA  
ALPEREKO BIZITZEA.

DANTE

---

---

## ZIORTZA (II): ABAT OSPETSUAK



*Sortaldeko sarrera, lenago sarrera bakarra. eskuman iru kurutzeak*

### ABATA ZER DAN

Gure errietan parrokiako arduradun danari "abadea" esaten jake. Izen ori lekaideetxeetatik etorria da. Parrokiak curen amarrenak eskuratzen ebezanean, zati bat Gotzaiñari emon bear izaten eutsoen eta Lakeide-etxeak ez euken olako emon-bearrik. Orregaitik, urtenbide bat aurkitzeko, parrokiak lekaideetxe lez artuak izan ziran, lekaide-etxeen menpean jarten ziran eta parrokiako arduradun danari "abade" emon jakon izena, baiña benetako "abadea" edo gaur, bereizteko esaten dan lez, "abata" lekaide-etxearen buru edo arduradun darla da: bere menpean daukaz lekaideak, bera izaten da eleizkizunetan buru, bera da etxeak dauzan ondasun guztien arduradun edo jabe antzekoa, eta abar.

Abatak ospetsu biurtu ziran gotzaiñen, erregeen eta erri guztiaren aurrean. Aldi baten aundikeria ba-zan euren giroan: Zaldi ondo apaniduetan ibiltzen ziran eta batzutan zaldiz eltzen ziran malladian gora curen gela ederrera arte.

Monastegiak, eta euren izenean abatak, dirutza aundiak artzen ebezan parrokietatik eta urriñeko errietan eukezan menpekoengandik. Entzuna dogu, esaterako, Zeanuri'ko San Lorentzo'ra gorpuak ekarten zirala Orozko'tik eta olako zerbait egiten eban Gamiz'tar zar batek neuri esana da euren etxeko gorpuak Gamiz'tik Ziortza'ra eroaten zirala an illobiratzeko. Zeanuri'n, gaiñera, amazpigarren gizaldian auzo bakoitzean abat bat agertzen da eta oneik sarritan agertzen dira aitabitxi lez bateoetan. Zer ziran abat oneik? Itaundu neutsan ori bein baten Mañarikua'tar Andres jaunari 1.970n. urtean Gazteiz'ko Seminarioan Barandiaran eta Lekuona omenduak izan ziran egun areitan, baiña ez ez ekian erantzuna. Izango ete ziran auzoetan amarr-enak eskuratzeko egozan arduadunak?

Olako jakingarri asko aurkitu leiz Lekaide-etxeak gure Euskalerrian izan dabon garrantzia agertzeko. Zori txarrez, jauntxuak alde batetik eta lekaideak bestetik ondo kentzen eutsen izerdia baserritar gizajo ta lanpetuai, baiña gauzak aldian aldiko!

## BIZKAIA

### ARAUDIA

Lekaidetxe bakoitxak bere araudia eukiten dau eta Ziortza'koak be ba-eukan berea.

I.384n. urtean onartu eban Kalagurri'ko Gotzain zan Mena eta Bargas'tar Gonzalo'k Kaltzada'ko Txomin Deunaren errian eta urte batzuk geroago 1.440n. urtean agertzen da beste agiri bat Kalagurri'ko Gotzain zan Belasko'tar Juan'ek izenpetuta eta araudi ori aldatzeko.

Araudi onetan Ziortza'n bizi ziran lekaideai Kanonigo izena emoten jake. Eta azkenez, 1.488n. urtean VIII Iñozentzio Aita Santuak onartu eban araudi ori.

Beste agiri bat be gogoratu bear dogo: Oñaztarrak artu eben lekua Lekaidetxe inguruan eta orregaitik etxeak erasoak izan ebazan Ganboa'tarren aldetik, lapurretak be bai sarritan. Izan be erdiaroak olako jazokizun asko izaten eban. Ori dala-ta Gaztela'ko Erregea zan I Juan'ek bere babespean artu eban lekaideetxea 1.381n. urtean eta bost urte geroago beste agindu baten bidez Bolibar'eko parrokikoak ziran amarrenak emon eutsozan lekaide-etxeari, ordez Gaiso-etxe bat zaindu egien eta errukizko zazpi egintzak bete. Parrokiaren eta lekaide etxearen artean gorabera aundiak izaten ziran amarren orreik eta euren elburua zirala-ta.

### IRUSTA'TAR DIEGO ABATA

Aurreko zenbakian esan genduan lez, eleizgizona izan zan lenengo abata Markina'ko Pedro Martinez izan zan. Baiña esan genduan lez, onen aurretik beste abat batzuk izan ziran amarrenak artzen ebezanak. Onein artean izendatzen da Dom Blasko abata, esan dogun lez Kukulla'ko Donemiliane'ren lekaide-etxean dan narrukian 1082n. urtean.

Ziortza'n izan diran abaten artean ospetsuena Irusta abata izan zan: Batxiller titulua eukan eta 1.514n. urtean izendatu eban X Leon Aita Santuak. Bolibar'eko semea eta esku-zurien edo leiñargien artekoa zan eta VI Alejandro Aita Santuak eskubide aundiak emon eutsozan. Bero nek lortu eban X Leon Aita Santuagandik Bula bat Ziortza'n gaiso-etxe ta ibiltarien aterpe izateko etxe bat egiteko baimena eta Jazokundeko Andra Maria'ren edo anaidia sortzeko. Orregaitik dago Abat-etxeraren balkoi-gaiñean Italia'ko Medieis etxearen ikurdia, Aita Santu ori sendi orretakoa zalako.

Txiroen-Etxe onek ez dau izan zorion Iarregirik: Amaitu baiño lenago Gaztela'ko komuneruak kalte aundiak egin eutsoezan 1.521n. urtean, eta bost urte geroago suak artu eban eta darla erre zan. Orregaitik asi ziran Aita Santuak emondako bullak "saltzen" berbaldiak egin ondoren. Aita Santuak emondako "mezedeak" kontuan zirala, induljentiak eta olakoak.

### MUNIBE'TAR LOPE ANTONIO ABATA

1.552n. urtean itzi eban abatetza Irusta batxillerrak eta Irusta'tar Bernardo egin zan abat eta XVI gizaldiaren azkenetan eztabaida aundiak izan ebazan Kalagurri'ko Gotzaiñagaz, Bolibar'eko parrokiaren gain aginpidea artu nai ebalako. XVI gizaldiaren asieran beste naste bat sortu eban Gotzaiñen eginkizunak egiten ebazalako. Azkenean Aita Santuaren Nuntzioak 1605n. urtean erabagi eban auzia Irusta abataren alde.

Irusta familiko beste abat batzuk be izan ziran baiña azkenean lortu eben sendi ori alboratzea eta Munibe'tar Lope Antonio egin eben abat. Au Peñatloidea'ko kondearen sendikoa zan eta sendi onetan ainbat abat izan ebezan. Orra or sendi leiñargien indarra.

XVII gizaldian Kalagurriko Eleizbarrutian, Bizkaia barro dala, eleizak txarto zainduta egozan eta III Feilipe erregeak. Gotzaiñak eskatuta, abade ez ziranai amarrenak artzeko eskubidea kendu eutsen, baita Ziortza'ri be Bolibar eta Gerena'ko amarrenak.

### ESKALTZO'TAR MATIAS ABATA

Inkisiziñoaren Epaitegian kideko zan 1.714n. urtean Ziortza'ko ardurea emon eutsoeanean. Markiña'koa zan semez. Baiña kanoniguak zaintza orren aurka jarri ziran eta 1.745n. urtean abat-orde ori Astorga'ko Gotzain egin eben.

1.759n. urtean araudi barria egin zan, lekaide etxea ondo ez joialako eta aspaldiko abatak Ziortza'n egon-bearrean beti kanpotik ibiltzen ziralako. Urriñean beste ardura batzuk artzen ebezan. Ez egoan ba Irusta'tarren aldiko ardurarik lekaide etxea zaintzeko.

XIX gizaldian kanoniguak baimena lortu eben alkarregaz ez bizi izateko eta mai baten ez jateko, eta Irusta'tar Martin abatak artu eban abat-ardurea. Auxe asi zan abat-etxe barrian bizi izaten.

1841n. urtean "Kolegiata" izena galdu eban eta orduko abata bertako parroko egin eben. Azkernengo kanonikua 1.858n. urtean il zan eta eleizbarrutiko abadeak arto eben parroki sortu-barriaren ardurea.

**OLAZAR'tar Martin'ek**



## EUSKALERRIA: EDESTI-GIOIA (X)

### KARLISTADA ETA SANTA KRUZ

Lenengo Karlistada emakume bat, gizonezkoen ordez, erregiña izendatu zutelako sortu zan. Bergara'n Maroto karlistak eta Espartero liberalak alkarri eman zioten "besarkada" negargarri batekin amaitu zan.

Isabel bigarrena zan erregiñ ori. 13 urte betetzearekin batera, ezkondu zuten Borbon batekin...

Urteak pasa ziran, eta 1868'an bota zuten erregeaultikitik Iraultzari bidea eman ez. Saboya'ko Amadeo aukeratu zuten errege berria. Bi urte besterik ez zuen iraun: 1873-Otsaillaren I l'an alde egin zigun Italia. bere errira a.

Ondoren, amaika illebeteko Errepublikak. Garai larriak ziran eta Fuero eta Erljioren aurkako lanean ekin zuten guztiak. Eta. orretxck eraman ginuzen berriro beste Karlistada batera.

Don Carlos de Borbón VII'garrenak, bere errege izateko eskubideak aurretik zituela. agintarien aurka jeikitze-ko agindua eman zuen, España osoan, 1872'ko Apirillaren 21 erako. Lau urte iraungo zuen eta. batez ere, bere barruko naigabez. il zan 1876'garren urtean.

### Santa Kruz apaiza

Bergarako salakeri arrekin oso asarre gelditu ziran benetako euskaldun errimaitaleak. Oien artean bat, Elduayen'go apaizgaia. An zebillen zoratu bearrean, BerQara'ko Salakeria gogora etortzen zitzaion bakoitzeko.

Samoa baserriko semea zan Manuel Ignazio Santa Kruz. 1843'an sortua. 1867'an egin zuten apaiz eta bereala asi zan Goierria'n zear, dirua biltzen eta armak ekartzen Frantzia'tik. Kobeetan, baserrietan, baita soro erdian egiñiko zuloetan ere, gordetzen zitun... Ordurako Hernialde'ko erretorea zan.

Tolosa'ko agintari liberalek susmo txarren bat artuta zeuden ordurako eta ots egin zioten Tolosa'ra etortzeko; baña. entzungor egin zien. Goiz batean, ara nun agertzen dan Hernialde'n mikelere eta soldadu pillo bat, komandantea buru zutela, apaizaren billa, Meza ematen ari zan bitartean.

Komandanteari eskatu zion, emateko tarte bat, Meza ondorengo otoitzak egiteko... Irten zuten elizatik eta beste eskari bat egin zion militarari: An aurrean zegoen baserri artan artzen zuen egunero bere gosaria, eta baraurik zegonez, ba uraxe nai, gozaldut.

Baietz, juateko. Gudari taldeak ipiñi zituen etxe-aurretik eta atzetik, ba'da ez ba'da ere. Apaizak. etxean sartu orduko, etxeoandrearri bere gizonen galtzak eta blusa bat ekartzeko eskatu zion. Aiek jantzi, otarra bat lepoan artu.

eskuan itaia eta atzeko atetik, soldaduen erditik, soroan barrena, Ernio'runtz.

Gosaria luze zijoan eta Komandanteak. susmo txarrak arturik, etxea ipurdiz-gora aldatzeko eskatu zien gudariei. Ganbarako belarretan baionetak sartzen saiatu ziran aldi luze batean... baña, baserrian ez zegoen apaizik. Ordurako Ernio menditik Bidania'ra jeisten ari zan Santa Kruz, bere lagun erretorearen etxera. Otarra eta itaia lagata, Tolosa'ra, soñean zituen jantzi aiekin. Tolosa'tik irten zuten bere billa gudari "beltzak" eta eurok baño lenago zan bera, Santa Kruz, axarien kabian, Tolosa'n.

Manuel Santa Kruz, gizon ausarta eta kirio gabea. Burua. otz.

### Santa Kruz'en gerrarako-irteerak

Don Carlos'en agindua betetzeko (1972-IV-21), Santa Kruz kapellau bezela irten zuen gerrara, Recondo Jeneralaren mendean... Irteera arek ez zeukan ez buru eta ez isatiz: naaste-borraste galanta.

Barkamena eskeintzea naikoa izan zan, guztiak, Jeneralak aurretik, etxera joateko, millaka fusil etsaien eskuetan utzita gero. Amorebieta'ko oraingo itzermana, Begarako Besarkada baño askoz okerragoa, Don Carlos'en iritzira. Recondo'ren kapellaua buru-makur Frantzia'ra; baña, Jeneral'en jokaera arrekin oso asarre.

Illebetere pasa orduko, irten du, bakarrik irten ere, emeretzi mutilen gidari, bere buruko indarrak neurtzera.

Gau aretan mutil bateri tiroa eskapatu eta oñetan eman zion. Ingumari artako berririk inork jakin ez eta Santa Kruz berberak, artu zuen mutila bere kontu. tokiren batean izkutatzeko. Artan dabillega, arrapatu dute Aramayona'n eta bertako udal-etxera eraman zuten, urrango goiza argitzen zanean, fusilatzeke. Maiatza zan, urtea 1872. Asi orduko, orra Santa Kruz'en azkena. Ilketan parte artzera, zetorren Gazteiz'tik Primo de Rivera jenerala.

Bein Hernialde'n iges egin ba'zun, gaur ere iges egindo du, naiz-eta Udaletxetik kalera salto egin eta aldameneko errekan bere burua izkutatu bear... Santa Kruz'en billa talde guztiak zakurrak axariaren atzetik bezela. Inguru guztietara zabaldu ziran, ez bait zekiten zer norabidera jo. Erreka berbera ere ondotoxo arakatu zuten. Dana Iperrik. Ogeita lau ordu billa ibilli ondoren, alde egin zuten guztiak Aramayona'tik: baita Primo de Rivera Jenerala bera ere: ustel gertatu zitzaion etorrera...

Errekatik irten zuanean, goseak eta otzak auldu, baserri bateko etxejaunak ami zuen, ondo zaindu eta koba batean gorde... Sendotu zanean. berriro Frantzia'ra.

## Irugarren eta aizken irteera

1872'ko Abenduaren lenengo egunean, deia egin zien beure mutillari, Biriatu'ko illerrian alkar biltzeko. 37 mutil agertu ziran bertara. Bidasoa ibaia igari pasa eta Aia'ko Arkaitzetara. Soñekoak aldiari legortu, gaueko otzari begiratzeke eta an alkartu ziran mutil geiago: danetara 50.

Poza zabaldu zan Gipuzkoa osoan. Santa Kruz etorri zalako eta mutillak bildu ziran bere inguruan geroz eta geiago. Ez zituen edonola artzen: ardo edo lizunkeriaren mendeko zirenak, ez zituen nai...

Bergara'tik Mondrago'ra zijoan liberalen konboi bate-ri, San Prudenzio inguruan, 47 fusil eta iru kaja munizio arrapatu zien. Deba'ko elizaren dorrean 50 eta karabine- roen beste orrenbeste zamarra, otzaren aurka. Mutil berriak etorri ala, ateratzen zituzten baserri eta kobeetan izkutatutako armak; baita, zuloetakoak ere...

Bost illebate, 37 mutillekin sartu zanetik, eta preso artu zuten Aramaiona'ra, bertara, azaldu zan, batalloi oso batekin: bost konpañia, eun gizon bakoitzak eta Santa Kruz aurrean. Karlisten batalloirik ederrena, indartsuena, zuzenena... Jendea, illunabarra izan arren, erriko plazara urbildu zan, pozez txoraturik, ikaragarritzko festa sortuaz: zoramena. Urte bete, maiatzetik maiatzera, Udaletxe are tan iltzeko preso zegoena, ara emen orain orrelako indar bereziakin, bera danen buru.

## Santa Kruz'en Etsaiak:

### Liberalak

Ez ziran gutxi. Lenengo ta bat Gipuzkoa'ko liberal agintariak: Tolosa'ko Agirre, diputadu jaunak, 10.000 urrezko pezta eskeintzen ditu Santa Kruz, bizirik ala illik, ekartzen duanari.

Bigarren lekua Karlisten, izarrez eta medallaz beteta-ko Jeneralentzako zan. Millaka gizon curen mendean izan arren, ez ziran ezetarako mogitzen: toki erosoak aukeratu eta bertan goxo: ibiltzeko zaldi bat eta lo egiteko, berriz, oge biguñak. Nekez mogitzen ziran burrukarako, eta beti gudari moltso aundiekin; Santa Kruz'en asmoa izaten zan, gizon gutxiekin, berrogeita amar ala eun, jo ta des- agertu: gaur emen eta biar beste urrutiko leku batean... Berak orrelaxe egiten zuan. Naiz-eta salatariz inguraturik egon, ez zekiten sekula nundik joko zuan Santa Kruz'ek. Liberalen soldaduak, mileketeak, liberalen boluntarioak, guztiak zebiltzen mendian gora, mendian beera, Santa Kruz'en arrastorik aurkitu eziñik...

### Jeneral Karlistak

Militar Karlisten Jeneral arro aukeratu zuten pakean jaso Santa Kruz'ek burrukarara irtezetan, aurrea artu ziela:

eurak Abenduaren 18'an eta Santa Kruz Abenduaren lenengo egunean. Ez eta erriek zioten maitasuna; gutxia- go oraindik mutillek ziotena eta auen burrukarako griña...

Orregaitik edo, Lizarraga Jeneralak, Gipuzkoa osoko zuzendariak, agindu au eman zien bere menpekoei: aurki- tzen dezuten tokian fusilatu Santa Kruz; onek berriz ez zion sekulan barkatu orain agertuko degun Aia'ko saldu- keria.

Santa Kruz Bergara aldeko Komandantea ez zan ber- tan goxo geldirik egoten: Aizgorri, Aralar eta Napar eus- kaldun mendiak jorratzen zitun etenik gabeko ibillera- tan... Aia'ko mendietan, Zarautz uriaren aurrean, muño bat egokitu zuen burrukarako gordeleku; zangak iriki zitun inguruan eta aurreko arboladiak bota errezago zain- tzeke.

Liberal agintariei ez zitzaieen gogoko muño ura eta indarrez artzea erabaki zuten: iru talde aundi bota zioten iru bide desberdiñetik: Donostia eta Tolosa'ko bideetatik baila; irugarrena Itziar aldetik. Itsasoa zeukan aurrean eta eraso jo zioten ezkerretik (Itziar), eskubitik (Donosti) eta atzetik (Tolosa)... Egun aietan Lizarraga Zarautz'en kokatuta zegoen milla gizonekin eta Santa Kruz'ek eska- tu zion ezkerreko (Itziar) bidea zaintzeko eta berak, beste biak zainduko zituela.

Lizarraga'k erantzun zion, baietz, egoteko lasai, berak emango ziela aurpegi... Ezkerreko erasoari begi- ratzeke, Santa Kruz'ek egin zitun beste bai egokitzen zitzaieen erantzuna emateko prestakizunak. Bigaramo- nean an nun datozen bi talde, nola eskubitik, ala atzetik. Jarri zitun mutillak ara begira; Lizarraga'k egingo zuen bere lana Itziar aldetik zetoztenekin... Ustea uztela ger- tatu zitzaion: Lizarraga'k zaindu bear zuen tokitik Primo de Rivera Jenerala agertu zan, kañoi eta guzti... Lizarra- ga'k Itziar'en bertan topa zuen Primo de Rivera; baña, eraso egin bearrean, aurrera jo zuan. Parean pasa ziran biak eta alkarri agur beroak botatzea besterik ez zitzaieen falta. An utzi zuen mandian Santa Kruz etsaien eskutik erailla izateko.

Estu-aldi aretan, bakoitzak al zuen tokitik iges egite- ko agindua eman zien Santa Kruz'ek illunakin batera eta goizean Itziar'en alkartzeko guztiak. Geienak an agertu ziran egunsentirako elizaren inguruan. Ango alkate-orde- koai agindu bat eman zion zorrotz: Biltzeko erriari zeuz- katen petroleo lata guztiak, utsak eta beteak: gurdian artu, eta Deba'ra jetxi ziran. Meatxu egin zien debarrei, erria erreko zuela, baldin dorreko karabinoak andik jetxi eta beuren armak ematen ez ba'zioten... Bizia bar- katuko ziela...

Meatxua bakarrik ez zan izango, eliz atariko karaitz arriak erreta bait daude... Dana dala, iskilluak eman eta zamarrak ere bai. Abenduko eguraldi otzak ziran aiek...

Santa Kruz Mutriku'ko zubitik ez zan pasa eta ara nun agertzen da, Itziar'tik beera, Primo de Rivera, txakurra erbiaren usañera bezela; baña, erbiak alde egin zion

Berriatua'raino gelditzeke eta andik Ziortza'ra. gaueko atsedena artzera...

Lizarraga eta Santa Kruz'en alkarrenganako gorrotoak estanda egin zuen Aia'ko arazo onetan. Eta etsaien eskutik erail ezin izan zuen gizona, Aia'tik bizirik ateratako Santa Kruz. Lizarraga berberak fusilatzeke agindua eman.

Ez zan, ordea, agindu ori Santa Kruz'en aurkako lenengo agindua: Azaroaren asierako egunean, Santa Kruz burrukara sartu zala, Dorregaray Jeneralak jakin zuanean, onela esan omen zuan: "Nik apaiz ori, arrapatzen dedan egunean, garbituko det". Zergaitik? Berari noiz sartu bear zuen, esan ez ziolako; bera bait zan Euskalerri eta Errioxa'ko karlista guztien buru.

Beste etsai bat, Dorronsoro Ataun'goa izan zuen gure Don Manuel Santa Kruz apaizak. Nor zan Dorronsoro? Gipuzkoa'ko karlisten Diputadu Nagusia, gudaroste osoaren arduraduna: janak, armak, jantziak. gauza guztiak, zeuden bere mende. Orregaitik. Aia'ko aretan, Santa Kruz'ek 15.000 kartutxo eskatu zion eta erantzuna: "Kartutxo zaararak betetzeko"... Biltoki bat zeukan Peña Plata zeritzan, Frantziako mugatik gertu, Etxalar inguruan eta andik irtetzen zuten Gudaroste batek bear zituenak eta danentzako zeuden prest, Santa Kruz'entzako ez ba'zan. Arentzako iñoiz ezer ez. Beingo batez, ara joan eta bosteun praka arrapatu zizkion Santa Kruz'ek. bere mutillentzako bear zituenak. Milla bidar bota zion lapurketa ori aurpegiara apaizari...

Beste medalladun jeneral karlista, Santa Kruz'en etsai, Valde-Espina degu. Santa Kruz Bidasoa'ko Bera'ra berreun gizonekin etorrita zegoen, beste irureun Aralar'en utzita. Artan, gauez eta ixilka, etsaien antzera, etorri zan Bera'ra Valde-Espina bere indar eta Lizarraga'k utzitakoekin: danetara, milla gizonetzko. Erriari bira osoa eman zion, erdian Santa Kruz arturik bere berreun mutillekin. San Fermin egun zan: Uztailak 7.

Bigaramonean Jeneralak, beregana etortzeko ordena bidaldu zion, izketaldi baterako. Santa Kruz'ek entzungor egin zion eta orduan, Konpañi oso bat bota zion etxera. indarrez ekartzeko. Santa Kruz'ek ez zuen karlisten arteko burrukarik nai, eta iru lagun artuta, joan zan Valde-Espina'rengana. Onek, Don Carlos'en eskutitza erakutsi zion. Erregearen agintea zekarren Santa Kruz'entzako: alde egiteko Frantzia'ra biurri naaskante bat besterik ez zalako eta karlistentzako kaltegarri.

Valde-Espina'k agindu zion emango ziola urrengo egunerako, Uztailak 9. Frantzia'rako bidea zabalduko zion txartela. Santa Kruz fidatzen ez, eta gau artan bertan, alde egin zuan, egoitza Valde-Espina'ren zaindaries inguraturik egon arren... Goizean goiz, ezpañak miazten, Lizarraga agertu zan Bera'ko errian, bere etsaia kaiolan arrapatuta zeukelako. Baña, Santa-Kruz'en billa joan ziranean, txoria alde eginda zegoen... Nola, baña? Zain-

dariz inguratuta egon arren, alde egin digu berriro... Bazuan artarako sen berezia.

### Santa Kruz'en ibillerak

Gau aretan iges egin zuen Frantzia'ra, lau kapitana lagun zituela. Bere asmoa zan Don Carlos berarekin itz egitea: baña egun artan bertan, erregea Sara'tik Zugarramurdi'ra sartu zan.

Santa Kruz eta bere lau kapitaneak, muño batetik begira egon ziran Don Carlos'ekin zijoan taldeari: markes, konde eta galartsu asko baña ganorazko gudaririk gutxi. Santa Kruz'ek bere kapitanei: "Emen benetako karlistarik ez dator; auekin ez dago gerra irabasterik". Itxura, besterik, ez.

Santa Kruz eta bere mutillek beste era batera oitua zeuden, gogor eta kementsu; erregearekin zetozenak, berriz, biguñak eta nekerik gabekoak ziruditen. Izar asko. domiña asko, galartsu asko... Geiegi gauza onerako.

Santa Kruz tarrek Pirene mendietatik, Leiza'ra, eta andik Aralar mendiera; emen Ataun'go San Gregorio auzoa artu eta andik Aizgorri'ra Araba'ko errietaraino... Gau ta egun, etenik gabe, ibilli oi ziran bizkor eta arin; era orretara, golpe bat emen eman, eta bestea espero ez zuten urruneko baztar batean... Don Carlos'en inguruko lagunak eta bere Jeneralak, bigun oituak, erosoago eta lasaia-go saiatuak, ez ziran bat etortzen Santa Kruz'erekin... Orregaitik, edo, Don Carlos bera ere Santa Kruz'en aurka gertatu zan, Jeneralen esanetara... Apaiz gizarajo bat, militar mailla altuenetako Jeneralekin eztabaidan, alajaiña...

Gipuzkoa'k zortzi batalloi zitun; bat, Azpeiti'koa, Bizkaia'ra pasa zuten; gelditzen ziran zazpirak, Lizarraga'ren menpekoak, Santa Kruz'en alde zeuden naiz eta, apaiza fusilatzeke agindua artuta egon. Goraka artzen zuten ikusten zuten bakoitzeko.

Aizkeneko illebeteetan, maiatza eta ekaiñean batez ere, erririk erri ibilli zan, izugarrizko agurrak eta festak sortzen leku guztietan jendea zoramenak artuta... Bitarte orretan, lau jeneral triste Don Carlos'en aurrean, ekin da ekin, esan da esan, apaizaren aurka... Aizkenerako euren ulburua lortu zuten eta 1972'an VI'aren 9'an, Frantzia'ra iges egin bear izan zuan Erregearen aginduz.

Berri txar orrek tristura sartu zion euskal erriari biotzean.

### Santa Kruz'en aizkeneko ekintza ausarta

Lau illebate zeraman Frantzia'ko desterruan. Lizarraga'k bi apaizaren ofizial eta lagun arrapatu eta fusilatu zituen. Santa Kruz'ek, burrukarako bear zuen dirua, armak bezela, Gipuzkoa osoan sakabanatuta

zeuzkan, baserrietan bezela, kobeetan ere... Aiek ekartzera bialdu zitun biak Santa Kruz'ek: eta artan dabiltzala. Lizarraga'ren eskuetan erori ziran. Bai onek laister garbitu ere.

Lizarraga'ren gaiztakeriak biotza urratu zion apaizari. eta burrukara berriro itzultzea erabaki zuen. Lizarraga Asteasun kokatuta zegoen aspalditik. Tolosa'ri erasotzeko asmoetan: inguru guztiko mendietan konpañiak zeuzkan zabalduta, bera erdian artuz, segurantzi osorako.

Santa Kruz'ek, Abenduko 6'tik 7'rako gabeen, mugatik Berrobi'ra jo zuen, frantzes, espaiñol eta karlista muga'zaiñak iruzurtuta gero. An. bereak izandako hi konpañiekin alkartu zan eta Asteasu aldera jo zuan. Bidean, beste zortzi konpañiek jarraitu zioten.

Neguko egunsenti aretan, zortziretarako, amar konpañiak Asteasu'ko enparantzan zeuden errenkadan zutik, Lizarraga eta Estado Maiorra elizan sartuta. Meza entzuten zeudelarik. Eskueta zeukan merezi zuten zigorra emateko aukera. Baña, ez zuen nai, iñolaz ere. karlisten arteko burrukarik, eta taldetxo bat bialdu zion elizara, berarekin itz egiteko prest zegoela esanez. Ez alperrik; Lizarraga'k eliz-ataritik, bereala alde egiteko agindu zion, gerrarik nai ez ba'zuen.

Konpañi batzuek Lizarraga'rekin zeudela ikusirik, eta karlista odol-ixurtzerik nai ez, enparantzan ordenan jarriak zeuden bere amar konpañiak artu eta alde egitea erabaki zuen... Eskuan txapela buru gañetik eragin, "Gora Jainkoá" eta "Gora Fueroa" ots agiñez, martxan jartzeko agindua eman zion amar konpañiei. Oñati'ra joan eta an zeuden Gipuzkoa'ko Junta Jenelei makurtu ziran...

Bera. berriz. Santa Kruz, Frantzia'ra igesi. Nola? Orixen ez dakigu. Irun'dik pasa zala besterik. Aingerak bezela, esku-artetik eskapatzen zion. Oraingo onetan, betirako: ez zan geiago Euskalerra'ra itzuli... An zebillen batetik bestera, bere burua izkutatu eziñik; baña, Espaiña'ko Gobernuak Frantzi'koari Santa Kruz'en extradizioa eskatu zionean, orduan Londres'era baztar-tu zan.

< \*

Bergara'koa baño negargarriagoa izan zan Amorebieta'ko itzarmena eta saldukari aundiagoa... Lau urtez Euskalerra ondoratu ta gero, amaitu zan 1876'garren urtean, karlistek sortutako gerra.

Naaste aretan Serrano Jeneralak, bere gudarostearekin, Madrid'en, Errepublikak kendu eta bere ordezkari Alfonso XII, Isabel II'ren semea, ipiñi zuen errege-aulkian. 28 urterekin il zan eta bere emazte Maria Cristina Hamsburgo'koak semea izan zuen, Alfonso III'garrena.

Maria Cristina au ere erregeordezko izan genduen. Amasei urterekin ezkondu zuten Alfonso XIII, 1902'an, Victoria de Battenberg. Ingalaterra'ko Erregearen illobarekin.

1923'an Primo de Rivera, Katalunia'ko Jeneralak, kolpe militar baten bidez, Espaiña'ko Gobernu bere eskuetan gogor artzen du, Abertzale euskaldunen agerpe guztiak kenduz. Sei urte beranduago, agintaritzak laga eta Frantzia'ra baztertu zan, bereala iltzeko.

### Santa Kruz mixiolari

Berealako batean, Londres'etik Ameriketara jo zuen mixiolari, karlisten azkena aurretik asmatuz. Berak alde eginda gero. ibilli ziran ibilli beste iru urtez burruka negargari aretan ezer zuzenik egin gabe, ondamentia Euskalerra'ri ekarriz; gauzak asieran baño okerrago aizkenean...

Ameriketara (Colombia) mixiolari, ezagutu zuen gerraren azkena. Ainbeste Jenerak, ainbeste medalladun, ainbeste galartsu eta ainbeste izar... Danak agintzeko; iñor gutxi aginduak betetzeko eta lanerako. Orre su-ziri festa aspergarri ura nola amaitu zan, ez Jainko eta ez Fuero. Azkenik, ezta erregerik ere...

Berrogeita amar urteetan mi xiolari izan ondoren, 1926'ko Dagonillaren (Abuztua) 10'ean il zan Pasto deritzan Colombia'ko errixka hatean, Andes mendietan, 2.800 metrora. An utzi zitun bere ezurak betirako, Euskalerra'rekin amesetan. Urte aretan Espaiña'n, indarke-riz agintzen zuan Primo de Rivera Jeneralak, Santa Kruz'en atzetik ibillitako beste aren illobak.

Mendietako indioak zitun maite eta auzoetan biltzeko, turma bat jotzen zuan, gerratean bezela. Mututu zitzaion eta bere emengo lagunei eskatu zion beste bat. Espaiña'ko Errege Alfonso XIII'garrenak. ori jakitean berak bialdu zion beste bat, Frantzia'tik ekarria, otzenagoa bait zan emengoak baño.

Turuta ori Pasto'ra Hilaren 10'ean eldu zan, Santa Kruz gorputz zegoela. Eta, beste mundurako ez zuan bear. Orre gizon bizkor baten amaiera. Tximista baten antzera jotzen zituen etsaiak eta, askok diote, bera izan ba' iñtz indar guttien buru, orduan, beste kuku batek joko ziola Euskalerra'ri.

Zumalakarregi lenengo gerratean eta Santa Kruz bigarrenean, biak eduki zuten Euskalerra'ko etorkizuna eskuetan: Zumalakarregi bala galdu batek garbitu zuen Begoña'tik Bilbo'ra begira dagoela eraso jo aurretik; Santa Kruz, berriz, Don Carlos'ek berak, bere jeneralen aolkuz, bota zuen Ameriketara mixiolari.

Primo de Rivera Frantzia'ra aldendu zanean, urte bateko Gobernu Berenger Jeneralak artu zuen. Auteskundeak egiteko aginduz. Egin ziran boto-emate oiek eta Errepublikanoek irabazi Monarkikoen aurka. Udaltxetako zinegotziak ziran tarteko. Alfonso XII'garrenak, Errepublikanoek irabazi zutela ikusi zuenean, Erroma'ra alde egin zuen, Bigarren Errepublikari bidea erretzuz.

Bigarren Errepublika au ez aan. Erlioaren aldetik, beste baño ohea gertatu; baña, eskuetan Estatuto bat zekarren euskaldunentzat eta pozik onartu genduen eskeintza ori.



Euskaldun guziei dei egin zitzairen Lizarra'ra (Estella'ra) Estatuto orren alde danok batera jokatzeko. Aizken orduan Karliste naparrek Lizarra'ra jo bearrean, Iruña'n alkartu ziren.

Errepublikak gogor ekin zuen Elizaren kontra eta orretzek eragin zien Napar karlistei, Mora Jeneralakin batera, gerra berri batean murgiltzera. 20.000 txapelgorri karlista jeiki ziran batera Irugarren karlistada onetan. Gipuzkoa eta Bizkaia'k eskuetan zekaren Estatutoa nai zuten, eta areri begira daudela, ustekabeen, karlista napar eta arabarrek zituzten bizkarretik erasoka... 1939'an gerra irabazi zuten, Espartero'tik eun urteetara (1839). Arek ebagi zuen Fueroen arbola, eta bizirik gelditutako mokorra (Coneier-to Económico), Franco'k sustraitik atera...

### **"Betikoa Jainkoa" eta Franco bera be il zan**

1978'an, Franco ilda gero. Konstituzio berria. Euskaldun geienek ez zuten onartu, Espartero'ren gaitza berbara zekarrelako. Ordukoak onela zion: "Se confirman los Fueros... sin perjuicio de la unidad política de la Monarquía" eta ostean azpitik ebagi arbola guztia. Franeo ondoren (1978) egiñikoak au dio, gudaroste españarrak gordeko duela "unidad política" ori.

Beraz, Espartero'ren denboretan gaude gaur ere, okerrago ezpada: oraingoan meatxu egiten digute españar militarrekin. Ez genduen onartu Konstituzioa eta arrazoi osoz. Eta ori demokraziaren frutua da.

Burruka aiek ezkerok dabil Euskalerrri'ko harrua sosegu gabe, su-mendiak heti lertzeko arriskuan dabilzan antzera. Espartero'k asitako lana. Franco'k borobildu; Franco il zan, baña ondorengo burruken sustraiak, urrutitik datoz: XIX'garren mendean bere askatasuna eta bizi-izatea kendu zienetik. Irdarkeriaren oñarria politikoa da, berreun urte auetan gauza asko bota izan badiote gañera ere.

Espartero'k 1839'an Fuero'aren arbola, azpitik ebagi zuen bere ezpataz. Eun urte beranduago. 1939'an Franco'k aizkena eman arbolaren mokor-ondoari... Baña, sustraiak an gelditu ziran... eta gero agertu dira bizirik dirautela.

**Deba'n 1998-VII-19'an.**

---

---

**ESKATZEN DAUTZUDAN  
BURDIÑEA BIZKAI' KOA DA,  
BERBAZ LABURRA, EGITEZ  
LUZEA.**

**Tirso de Molina**

---

---

**EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILAK,  
ARABAKO FORU ALDUNDIKO KULTURA SAILAK,  
GASTEIZKO UDALAK**

eta

**MIREN TERESE URRESTARAZU** andereak

~~Amendurik~~ Urrestarazu "Umandi" jaunak idatzi eta il ostean argitara  
**ASMO-IZTEGIA**

izeneko iztegiaren auzkerpen-ekitaldira atsegin andiz gonbidatzen zaituzte.

Esandako ekitaldia 2000ko ekainaren San egingo da, arratseko 7etan, Gasteizko "Ciudad de Vitoria" otelean.

# JOANA ETA ORAINA BASERRI MUNDUAN

Gaur egun, lugintza mundua, euskal etnia eta izkuntzeari lotuta. euskal munduaren euskarria da. Euskalerrian lugintza edo baserri mundua aztertzea, bada, leba andikoa da. Bai baserria, bai bertako familia eta tradizioa, euskal tradizioa. Baserriaren bizitza istorian zear, atan be.

Tstoriaurre sasoian (K.a. 3000-2000) abelazkuntzan erabilitako euskal berbak erabilten doguz gaur egun be. Danak "atx" erroduak (atxa eta arria), esaterako: azkora, atxur, azkon, aztaga, aizto.... Istoriaurreko giza taldeei gens izena emoten jake. Gens ezbardinon artetik leinuak sortu ziran.

Emakumeak garrantzi andia eukan orduko euskal kulturaren. Mari-ren euskal mitoa leengo ama tribalen mitifikazioa izan leiteke. Orduko gens orreetako luginentzako ama ze leba andikoa zan, azaldu leike aurrean esandakoak. Bardin. Basajaun-en mitifikazioa eiztarien gomutagarri izan leiteke.

Istoria igaro aalean, lugintza eta abelazkuntzeak eizagintzeari aurre egin eutsoen eta, ondorenez, leinuak eta euron erritxuak mendietan ez eze, arantetan be kokatu ziran.

X. eta XI. gizaldietan, feudalismoa eta kritautasuna zabaldu ziran euskal lurraldean. Lugin zein erritar apalek jauntxu edo andikientzako egiten eben bear. Feudalizazioa eta merkatuak izan ziran buruzagiak agertzeko oinarriak, buruzagiok inoren kontura gero eta geiago aberasten zirala. Patriarkalizazioa jaio zan, bada, euskal gizartean. Ortik sortu ziran, sortu be, Aaide Nagusiak eta euren arteko gudak eta burruka odoltsuak.

XII. gizalditik XVI. gizaldira bitartean, luginak erritxueta bizi ziran, Aaide Nagusien Torretxeen inguruan batuta. Luginak eurek landu bearreko lurren banaketan artu eben esku. Aaide Nagusiaren ondorengoak familiaren orubeari lotuta egozan eta bertan jauregia eregiko eben. Aaide Nagusiak odolaren bitartez egon ziran lotuta lugineri. Izatez, eurok be luginak ziran. Besteak baino aberatsagoak, zorribiztuak, izan be. Jauntxuak jaio ziran. Luginak, jauntxu orreen lurretan bear egiten eben lez, zergea ordaintzen eutseen

areen errotea edo burdinolea erabili gura izan ezkeron.

XIV. gizaldian Aaide Nagusien arteko burrukak ixetu ziran, zergak igoteko, aurki. Aaide bakotzak besteak baino aalmentsuago gura izan. Gizon sail edo bandoetan eratu ziran. aberatsago izateko, berbarako: ganboatarrak eta oñaztarrak. Bakio oñaztarren alderdian egoan.

XV. gizalditik XVI. gizaldira, Aaide Nagusiak indargetuta eta zordun zirala, etxaguntza txikietan banandu ziran areen lur guztiak. Aldaketa andia, bada, euskal basartean. Etxaguntzea familian leenengo jaiotako umeak eukan leentasunean datza. oinordekotzan, atan be. Nafarroako legeetan batuta egoan ekandu zaarra zan. Etxeko ondasun guztia, zatitu barik, leenengo jaiotakoaren eskuetan lotzen zan. Oinordekoa bera izaten zan.

XVIII. gizaldean, Ilustrazinoan ingurukoek gogor ekin eben euskal lege zaar aren aurka, baina XIX. gizaldira arte ezin izan eben legea indargetu.

Feudalizazioaren amaieareagaz batera, luginak jauntxuen erritxuak itzi eta mendian zear zabaldu ziran, baserri bakartuak eratuz. XVII. gizaldiaren asiketan, lugintza sano egonkorra izan zan. Antxinako Aaide Nagusiek, jauntxuen oligarkia biurtuta eta merkataria moderno lez eratuta, etxaguntzearen lurak errentan emoten eutseezan lugin edo baserriarrei. Errenta ori gurasoakandik seme-alabakana oinordekotasan eran igaroten zan familia barruan. Familiok gune auto-ornitzailak ziran. Lurrak, baina, guztien artean bananduteko erarik ez egoan, lurrok errentan euki aal izateko, jakina. Alan da ze, leenengo semea edo alabea izaten zan oinordekoa. Osterantzeko seme-alabek eleiztar sartu edo Espainia zein Ameriketara joan bear.

XVIII. gizaldian teknika barriak eldu ziran lugintza mundura: mekanizazioa, arintasuna, abere eta beargin gitxiagoren bearrizana.

XIX. gizaldira arte, bada, jauntxuak lurren errenten bidez irabazitakoei esker bizi ziran. Baina gizaldi orren asiketan Kapitalismoa jaio eta egoera ori

aldatuz joan zan. Baserriarrek baserria itzi eta urietara jotzen eben, bertan bear egin eta soldatea irabazteko. Ori dala eta, ogibide barriak agertu ziran. Luginak ez eben curen buruarentzako bear egiten, curen eskubearra kapitalistek salduten eutseen soldata baten truke.

XX. gizaldiko azkenengo gudatik ona, baserri mundua aurbeeran joan da. Bizimodua aurrera atarateko bestekoa izatetik baserri asko be asko utsik lotzeragino. Baserri mundua ez da, gaur egun. orokorrean esanda, bizimodua atarateko biderik aukeratuena. Baina. baserria or dago egon eta urte askotarako.

**Ainara MADARIAGA**  
(laburtu eta egokituta)

.1...t...~.

## BERBALAPIKOA

**lugintza** = nekazaritza.  
**euskarri** = oinarri, eustazpi.  
**leba** = garrantzi.  
**atan be** = ain zuzen be.  
**abelazkuntza** = abereen azkuntzea.  
**azkon** = gezi, dardo.  
**aztaga** = lantza.  
**leinu** = tribu, askazi.  
**lugin** = baserriar, nekazari.  
**eiztari** = eizan egiten dauana.  
**gomutagarri** = oroigarri, gogoragarri  
**aaide** = senitarteko.  
**orube** = lursail, etxalde.  
**eregi** = eraiki, egin.  
**zorribiztu** = arin aberasten dana.  
**zerga** = errenta, tributu.  
**ixetu** = biztu.  
**aalmentsu** = indartsu, aaltsu.  
**indargetu** = indar barik, makal.  
**etxaguntza** = etxejauntza.  
**oinordekotza** = oinordeko izateko eskubidea.  
**ekandu** = oitura.  
**oinordeko** = jaubegai.  
**egonkor** = iraunkor, aldagatz.  
**alan da ze** = beraz, bada.  
**aurbeeran** = beerantzean, gainbeeran.

## BURDIN-OLAK (II): EDESTIA

XVIII gizaldiaren azkenera arte Bizkaia'k. eta antzera Euskalerra osoak, izan ebazan irabazbiderik aundienak, base-rria alde batera itzita (au etxerako fan), artillea Banea) eta burdiñea izan ziran. Aldi luze areitan Bizkai'ko mendi-gaiñeetatik lana asko sartzen zan, Leon'dik, Gaztela'tik eta Extremadura'tik etorriak eta iñoz-iñoz Teruel eta Balenzia'tik be bai. Berton be ba-egozan artzaiñak.

Baiña noiz asi ete zan Bizkaia burdin -lana egiten? Ez daukagu urtea edo aldia zein zan argitzen dauskun jakingarririk. España-aldian aurkitu dira leku askotan burdin -tokiak edo ondakiñak edo astarrenak, Kristo'ren aurretiko VI gizaldian burdin -lana egiten zala agertzeko, geien-geien Soria'n eta Gualajara edo antxiñako Arriaka'n. Millak illobiak aurkitu dira burdiñezko gomutakiakaz. Aldi beratan Gaztela'n be aurkitu dira olako ondakiñak, Andaluzia'n eta Galitzia'n be bai. Baiña Euskalerrian ez da aurkitu olako astarranik, naizta Kristo'ren osteko I gizaldian Plinio idazleak argi esan "Kantabria'ko itxas-aldian mendi aundi bat dagoala eta, sinistu-eziña izan arren, dana burdiña utsa dala". Mendi aitatu ori Triano dala diñoe.

Lurralde onetan izan ziran lenengo olak garrantzi aundi bakoak eta oso atzeratuak ziran, laba bat eta burdiñea bere senera ekarteko lagungarriak baiño ez eukezan, maillukadaka zikinkeriak kendu eta beste barik lortzen ziran burdin -ageak.

XIII gizaldian asi ziran bizkaitarrak uraren indarraz txirriña erabilten eta bide orretik auzpoari eragiten. Gizaldi bi geroago lortu zan mazo aundiak, gabiak edo martinetek orrelan erabiltea. Onenean be ez eben lortzen eguneko amar bat tone baiño asko geiago. Geroago etorri ziran lurrundarrezko lagungarriak eta eguneko 3.000 tone be egiten ebezan.

Uraren indarra erabilteko erea XIV gizaldi inguruan etorri zan ba, eta ori Oartzun'go foruan agertzen da idatzita, I.366n. urteko agirian XI Alfonso 'k diñoana kontuan artuta. Bide ori artu zanean burdin-olak mendi -gaiñeetatik aldapetara jatzi ziran, erreka-ondoetara, ura artzeko aukerea izan egien. Ori ba-diñosku Iturriza berak be Bizkaia'ren Kondaira liburuan eta Larramendi'k be bai bere Koreografia liburuan. Mendietan egozan burdin-olai "agorrolak" esaten eutsen orduan eta aldapetan jarriai "zearrolak".

Balmaseda'koa zan Zumalabe'tar Markos'ek ipiñi ei eban bere burdin-olan, onen izena "La Penilla" zan, lenengo gabia ur-indarragaz. Kadagua ibaiaren ondoan. Italiarra zan Juan Tomas Fabrikario'k epaitegira croan eban, idar-asmakizun barri ori berea zalako.

XVI gizaldiaren asieran daukagu ba, lenengo burdin-ola osoa eta aldakuntza barik jarraitu eban iru gizalditan, XIX gizaldian Laba Aundia sortu arte.

\*X=;

Ilkusi eta aztertu daigun olako burdin -ola osotu bat. Lau gai daukaz onek: Labea, auzpoak, sutegia ta gabia edo mazo (martinete).

1<sup>a</sup> Labea: Au karabiaren antzekoa zan, baiña ez ain aundia. Eta sarritan laban barik zugatz-enbor iziotuen gaiñean urtuten zan meakia.

2<sup>a</sup> Auzpoak: auzpo hi ziran. urak eragiñak txirrin baten biartez, batac edo besteak, txandaka euren lana egiten ebela,

orrelan aizea jarraian sartu daiten, kono antzeko tobera edo aize-bidearen azpian putz egiten eben. Beste burdin -ola batzuk aize-arka euken. Au Ribadeneira izeneko batek asmau cban Salazar'tar Antolin lagun chala, 1.633n.ean. Ez zan zabaldu Bizkai osora, erabilten gatxa zalako.

3<sup>a</sup> Sutegia: Lurpean egoan, baiña ez sakon, gaiña burdiñezkoa chala. Buruzbera dagoa iruzoko edo piramide-antzekoa zan.

Gogoratu daigun ola-gizonak erabilten eben iztegitxu bat:

- Bergamatzo: auzpoen eta sutegiaren arteko ormea.
- Betarri: Aize-bidea itxiteko latea, burmea.
- Zearzulo: Meatz loiak urteteko bidea.
- Azearra: Betarriaren aurreko latea edo burmea.
- Idirigela: Zearzuloaren aurreko beste alde.
- Zirilloa: Sutegiaren azpia.
- Zamarrea edo agoa: Burdin urtu eta loa, sutegitik aterata.

4<sup>a</sup> Gabia edo mazo (martinete): Dana zan zurezkoa, mazo bera, jungedea, inguruko uztaiak eta ertzak batzen eutsozan zuntxoak izan ezik.

Orrez gaiñera, ezin itzi esan abrik, egur-ikatza eukiteko toki bat egoala burdin-olearen alboan.

Burdin-ola bakoitxean lau langille egozan, lau ola-gizon: goitik berako eta eun sendozko jazki zuriak jantzita, buruan kapela zabal bat eukela. Bat meallea zan eta onek meatza garbitu eta zatitu egiten eban. Beste batek burdin-age aundia eskuan ebala sutegiaren azpia aztertzen eta zaintzen eban. Urtzailleak zamarrea edo agoa aztertzen eban. Irugarrenak agoa artzen eban alikate edo kurrika aundiagaz eta iyelea eukan onek izena. Laugarrena ola-maisua zan eta arotza esaten eutsoen orduan, olatxuetan txiketzailla. Au zan guztien buru.

Antxiñako esakunea da "olagizonak eta errementariak praktatxu zarrak eta begiak gorriak".

Zenbat ola izan etc ziran Bizkaia'n eta Euskalerrian?


Batzutan geiago eta beste batzutan gitxiago, urteen joanean, burdinaren eta burdinkien eskariak geiago ala gitxiago ziran kontuan artuta. Edo meakiak urri ala ugari edo ikatza edo egualdiak zelakoak ziran. Egualdiak zergaitik? Ba, erreketan ura geiago edo gitxiago etorten zalako.

Iturriza'k diñoanari jarraituz, auxe esan geinke: I.644n. urtean Bizkaia'n 162 ziran olak eta olatxuak. L.658n. urtean 162 ola eta 70 olatxu. Urte batzuk geroago zenbaketa egin eban Jaunerriaren Batzarrak, 1.687n. urtean, 147 ola ebiltzaz lanean eta 128 geldi edo jausita.

Iturriza'k diñosku berak liburua idatzi ehanean, 1784n. urtean, Bizkaia'n 141 ola egozala, baiña batzuk burdin-aldaketarako ziran, sartagiñak egiteko. Urte batzuk geroago, XIX gizaldiaren asieran Labayru'k 140 ola dakaz eta gaiñera 116 errementari.

Ez da ba erreza zenbaki ziurrak ekartea, baiña esan leike XVIII gizaldian urritu egin zala sutegien, olen eta errementarien kopurua.


OLAZAR'tar Martin'ek



**EUSKERAZALEAK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



## BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat  
artuten dogu, geure erri onen  
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik  
lagunduten deutsegu gogo osoz,  
geure nortasun berezia indartuten  
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten  
deutsagu, kultur adierazpenen  
artean, gure ezaugarririk gorena  
dan euskerearen garapenari.

**EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK**



**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa